

37E/2026 EBAZPENA ekainaren 26koa, Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutuko zuzendari kudeatzaileak emana, "Euskara helduei irakasteko laguntzak: 2025-2026" deialdiko hirugarren ordainketa ebazten duena.

ERREFERENTZIA: **Espedientearen kodea: 0011-0617-2025-000000**

UNITATE KUDEATZAILEA: Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentua
Euskararen Sustapen eta Plangintzaren Zerbitzua
Euskara Sustatzeko Atala
Tfnoa.: 848 423224
Helbidea: Paulino Caballero, 13. 31002 Iruña
Posta elektronikoa: euskarabidea@navarra.es

Euskararen Sustapenaren eta Plangintzaren Zerbitzuak maiatzaren 7ko 52E/2025 Foru Aginduan onetsita eta abenduaren 10eko 91E/2025 Ebazpenaren bitartez esleitutako deialdia dela eta aurkeztutako ordainketa proposamena ikusirik, aurkeztutako txostenak justifikazio-dokumentuen baliagarritasuna eta horien gainean egindako balorazioa jasotzen du.

Beraz, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta Foru Sektore Publiko Instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legeak, Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskararako Departamentuaren egitura organikoa ezartzen duen azaroaren 15eko 239/2023 Foru Dekretuak eta Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutua erakunde autonomoaren estatutuak onartzen dituen azaroaren 15eko 240/2023 Foru Dekretuak emandako eskumenez baliatuz, honako hau

EBATZI DUT:

1. Onuradun bakoitzari beheko taulan ageri diren zenbatekoak ordaintzea, laguntzaren lehen zatian:

Num Exp	NIF	Nombre	Partida Presupuestaria	Importe
0011-0617-2025-000002	G31240005	ASOCIACION CULTURAL BORTZRIETAKO EUSKALTEGIA	G/B30002/B3200/481 9/334104	15.358,17 €
0011-0617-2025-000003	F95222816	EUSKARAZ KOOP E	G/B30002/B3200/481 9/334104	333.375,67 €
0011-0617-2025-000004	G31238199	ATARRABIAKO GAUESKOLA KULTUR ELKARTEA	G/B30002/B3200/481 9/334104	9.444,18 €
0011-0617-2025-000006	G31263072	ASOCIACION LEITZAKO EUSKALTEGIA	G/B30002/B3200/481 9/334104	20.753,54 €
0011-0617-2025-000005	G31246911	ASOCIACION CULTURAL DONEZTEBEKO EUSKALTEGIA	G/B30002/B3200/481 9/334104	6.887,52 €
0011-0617-2025-000007	G31941008	FUNDACION SAHATS	G/B30002/B3200/481 9/334104	72.405,39 €
0011-0617-2025-000009	G31762529	FUNDACION ARTURO KANPION	G/B30002/B3200/481 9/334104	108.185,00 €

2. Ebazpen hau jakinaraztea eskatzaile bakoitzari, eta igortzea Ekonomia eta Ogasun



CSV: 925D530CC1B6C218

Pág.: 1/2

EX.03.0005 Rev.: 1

Puede verificar su autenticidad introduciendo el CSV en / Benetakoa dela egiaztatu dezakezu CSVa hemen sartuta:

<https://administracionelectronica.navarra.es/ValidarCSV/default.aspx>

Emitido por Gobierno de Navarra / Nafarroako Gobernuak emana (DIR3: A15007522)

Fecha de emisión / Noiz emana: 2026-07-03 10:03:53

Departamentuak Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarakoan duen Kontuhartzaitza Delegatuari, aipatutako departamentuko Idazkaritza Tekniko Nagusira eta haren Kudeaketa Ekonomikoaren atalera, Euskarabideko Euskara Sustatzeko Atalera eta Gai Administratiboak, Langileria eta Azpiegiturak kudeatzeko atalera.

3. Ebazpen honek ez du administrazio bidea amaitzen, eta horren aurka gora jotzeko errekurtoa jar daiteke, Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentuko kontseilariari zuzendua, jakinarazi eta biharamunetik hilabeteko epean.

Iruñean, 2026ko ekainaren 26an.

EUSKARABIDEA - EUSKARAREN NAFAR INSTITUTUKO ZUZENDARI KUDEATZAILEA

Javier Arakama Urtiaga

